

LEIOAKO BERTSOPAPER LEHIAKETA 2010

Bertsoa euskal literatur generoa da berez. Euskararen Eguna ospatzeko eta leioaztarren artean genero hori sustatzeko asmoz, Leioako Euskara Zerbitzuak BERTSOPAPER LEHIAKETA deituko du, hurrengo OINARRIEN arabera:

- 1) Hala nahi duten pertsonak parte har dezakete, hurrengo kategorietan bananduta:
 - A kategoria: 15 urte arte
 - B kategoria: 15 urtetik aurrera.
 - C kategoria: Leioako eskoletako bertsopaperik onena (lehen hezkuntzakoentzat eta taldeka).
- 2) Gaia librea izango da..
- 3) Parte hartzaile bakoitzak nahi beste bertsopaper aurkeztu ahal izango du, euskaraz soilik. Lan bakoitzak lau bertso gutxienez izan beharko du eta zortzi gehienez. Neurria norberak aukera dezake. Epaimahaiak gainera estiloa, kontaketa garapena eta originaltasuna hartuko ditu kontutan.
- 4) Bertsoek beste lehiaketa batean saririk gabeak, jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izan beharko dute, hiruna kopiatan aurkeztuko dira eta izenburua edo izengoitia soilik eduki behar izango dute, egilea identifika dezakeen xehetasunik gabe. Jatorrizkoarekin batera, eta kartazal itxian, egilearen datuak sartuko dira (izena, deiturak, helbidea, jaioteguna, telefono zenbakia eta, posible bada, posta elektronikoa). Kartazalaren kanpoaldean idazlanaren izenburua edo izengoitia eta zein kategoriari dagokion jarriko da.
- 5) Lanak 2010ko azaroaren 9a eta 25a bitartean jasoko dira, biak barne.

KULTUR LEIOA (Euskara Zerbitzua)
Jose Ramón Aketxe Plaza, 11
48940 Leioa (Bizkaia)
Tel.: 94.607.25.76

Hara joanda ala postaz bidalita eta kanpoaldean "Bertsopaper Lehiaketa" jarrita. Bidaltzen diren lanak bidean hondatu edo galtzen badira antolatzaileak ez du erantzukizunik izango. Postaz bidalitako lanek zigiluz markatuta egon behar dute, **azaroaren 25eko dataz beranduenez**.

- 6) Kategoria bakoitzean honako sariak banatuko dira:
 - A kategorian:
 - a. 1. saria: material sorta euskaraz (liburuak, komikiak, CDak...) + 100 euro.
 - b. 2. saria: material sorta euskaraz + 50.
 - c. 3. saria: material sorta euskaraz.
 - B kategorian:
 - a. 1. saria: material sorta euskaraz (liburuak, komikiak, CDak...) + 250 euro.

- b. 2. saria: material sorta euskaraz + 120 euro.
- c. 3. saria: material sorta euskaraz.

- C kategoria:

- a. Sari bakarra: 250 euro.

Sariak eman gabe gera daitezke, epaimahaiak hala erabakitzen badu.

- 7) Epaimahaiaren erabakia nahitaez onartu beharrekoa izango da eta bere iritzia nagusi izango da.
- 8) Sariak 2010eko abenduaren 2an emango dira, Kandelazubieta Kiroldegian izango den Euskararen Eguneko Jaian. Ekitaldi horretan, saritutako lanak irakurriko dira.
- 9) Leioako Euskara Zerbitzuak saritutako lanen jabetza bereganatuko du, baita eurak erakutsi, berregin edo argitaratzeko eskubidea ere. Ez da egile eskubiderik eskatzerik izango. Lanak Udalaren kultur ondarrera bilduko dira eta ezin izango dira salerosketa gai izan.
- 10) Baldintza orokorrak eta aurkezteko baldintzak betetzen ez dituzten lanak atzera botako dira.
- 11) Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarriok oso-osoan onartzen direla esan nahi du.

Datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 5. artikuluan adierazitakoa betez, jakinarazi nahi dizugu inprimaki honetan adieraziko dituzun datuak Euskara Zerbitzuko Lehiaketetako partaideen datu-fitxategi batean erregistratuko direla; horren helburua deialdiak izan dituen partaideak ezagutzea da; informazioa Leioako Udalaren Euskara Zerbitzuko langile eta arduradunek jasoko dute eta fitxategiaren arduraduna Euskara Zerbitzua izango da (Jose Ramon Aketxe, 11-4. solairua).